

HITZALDIKO EDUKIA/ESKEMA:

- 1. Bizi dugun/gaituen garaiaren irakurketa orokorra**
- 2. EAEko normalizazio-prozesuaren diagnostikoaz bi hitz (gehiago)**
- 3. Hizkuntza-politikaren azterketarako markoa**
- 4. EAEko Hizkuntza-politikaren bilakaera**
- 5. Estatu-egituren esku-hartzea**
- 6. EAEko Hizkuntza-politikaz zenbait ondorio orokor**
- 7. EAEko HP birpentsatzen: erronka proposamenak**

1) BIZI DUGUN/GAITUEN GARAIAREN IRAKURKETA OROKORRA (Txillardegi Gogoeta Gunea)


1. Mundu mailan sekula ezagutu ez den abiadan aldaketak.
2. **Hizkuntzen itzulpen eta interpretazio sistemek eraldaketa sakona dakarte.**
3. Eraldaketa demografikoa: migrazio, mugikortasunak, gizartearen zahartzea.
4. **Ziurgabetasuna, eta ezegonkortasuna** nagusi.
5. Etorkizun desiragarri bat, utopia edo proiektu politiko bat partekatzea zailtzen. Gizartea zatikatzea eta indibidualizatzea.
6. Paradoxikoki, inoiz baino biziago taldetasun beharra. Heldulekua eta babesa eskaintzeaz bat, nor izaten lagunduko digun komunitatearen beharra.
7. Horrek guztiak honek sekulako eragina izango du identitate kolektiboaren erreproduzio sistemetan.
8. **Liberalismo linguistikoaren diskurtsoa eta praktika.** Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna merkatu parametrotan. **Hizkuntzari lotutako aferak herritarren borondate librearen bidez ebazten diren ideia faltsua indartzen** ari da. Horrek, politika publikoen eskuhartzea gaitzestea; edo, onenean, gutxiestea dakar.

2) EAEko NORMALIZAZIO-PROZESUAREN DIAGNOSTIKOAZ BI HITZ (GEHIAGO)


GURE DATUEN/ERREALITATEAREN INGURUKO ILUSIO OPTIKOAK/IDEIA MARKOAK:

- Belaunaldi berriak euskaldunduko dute gizartea.
- Euskaldunak geroz eta gehiago eta erdaldunak gutxiago.
- Elebidunak (edo euskaradunak) geroz eta gehiago, baina erdaradunak %100.
- Edota, elebidunak geroz eta gehiago, erdal elebakarrak geroz eta gutxiago


Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE. 1991-2016 (%)



EAEko euskara gaitasunaren datu absolutuak adinaren arabera (2016)



EAE






IRUDIKAPENA. ILUSIO OPTIKOA


ERDALDUNAK VS

EUSKALDUNAK VS

EUSKALDUN HARTZAILEAK



ERREALITATEA







2) EAEko NORMALIZAZIO-PROZESUAREN DIAGNOSTIKOAZ BI HITZ (GEHIAGO)

(I. lurrebasoren eskutik)


EZAGUTZA > ERABILERA
IDEIA-MARKOA



6 GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA, HIZTUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016(*); EGOERA GUZTIAK KONTUAN HARTUTA, MINTZAKIDEAK EUSKALDUNAK IZAN EDO EZ (ERABILERA OROKORRAREN ADIERAZLE SINTETIKOA, ERABILERA-TASAK, %)



7 GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA, HIZTUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016(*); EUSKARA ERABILTZEKO AUKERA DAGOEN EGOERAK SOILIK AINTZAT HARTUTA, HOTS, MINTZAKIDEAK ERE EUSKALDUNAK DIRENEAN (ERABILERA OROKORRAREN ADIERAZLE SINTETIKOA, ERABILERA-TASAK, %)





TXILLARDEGI
Gogoeta
Gunea

3) HIZKUNTZA-POLITIKAREN AZTERKETARAKO MARKOA



“HIZKUNTZA-POLITIKA BETI EGITEN DA”:

- Politika publiko guztietan (hizkuntzaren omnipresentzia)
- Erabakiak hartuta edo erabakirik hartu gabe ere (Status quo-a mantentuz)

3) HIZKUNTZA-POLITIKAREN AZTERKETARAKO MARKOA: gobernantza

- **Zer da?** *Gobernantza merkatuko aktoreak eta gizarte zibilekoak gobernatzeko ekintzara ekartzean oinarritzen den erregulaziorako, koordinaziorako eta kontrolerako modu espezifikoa da (Subirats 2018)*

Beraz, hizkuntza-politika garatzeko garaian aktore bakoitzaren (indar)posizioa(k) definitzen du.

- **Zergatik da garrantzitsua?** Demokraziaren pribatizazioa, konplexutasuna, osagarritasuna eta eraginkortasuna.
- **Zein da EAEn gizarte eragileen parte hartzea maila?**

3) HIZKUNTZA-POLITIKAREN AZTERKETARAKO MARKOA: gobernantza

- **Zer da?** *Gobernantza merkatuko aktoreak eta gizarte zibilekoak gobernatzeko ekintzara ekartzean oinarritzen den erregulaziorako, koordinaziorako eta kontrolerako modu espezifikoa da (Subirats 2018)*

Beraz, hizkuntza-politika garatzeko garaian aktore bakoitzaren (indar)posizioa(k) definitzen du.

- **Zergatik da garrantzitsua?** Demokraziaren pribatizazioa, konplexutasuna, osagarritasuna eta eraginkortasuna.
- **Zein da EAEn gizarte eragileen parte hartzea maila?**





TXILLARDEGI
Gogoeta
Gunea

4) EAEko HIZKUNTZA-POLITIKAREN BILAKAERA

1980-90: eraketa urteak.

- **Corpus juridikorako oinarriak:** 10/1982 Euskararen Legea
- **Administrazioa:** Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea
- **Hezkuntza:** 138/1983 DEKRETUA (ereduen sistema), Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarian hizkuntza ofizialen erabilera araupetuz
 - HABEren sorrera (1983)
- **Hedabideak:** ETBren sorrerarako 5/1982 Legea, 240/1986 Dekretuak irrati lizentzien irizpideak
- **Gobernantza:** Euskalgintzarekin harreman urria eta gatazkatsua (AEK)

90-2000: Barrura begira, administrazioa euskalduntzeko oinarriak.

- **Administrazioa:** Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 Dekretua. Euskal Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legea eta Osakidetzan normalizatzeko 67/2003 Dekretua. Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legea eta Ertzaintzan euskararen normalkuntza-prozesua arautzen duen 30/1998 Dekretua.
- **Hezkuntza:** AEKrekin hitzarmena 1995
- **Sozioekonomia:** Elhuyarrek euskara-planak (1991). Pilotuak.
- **Hedabideak:** Egunkariaren sorrera 1990 \square 1994 lehen dirulaguntza.
- **Gobernantza:** Topagunea 1996 eta Kontseilua 1997. Gatazkatik lankidetzara bila.

2000-2015: Eremu berrietara zabaltzen... bikoizketekin.

- Kontseiluaren Bai Euskarari plan-estrategikoen ondotik, EBPN (1999)
- Hizkuntza Eskubideen BEHATOKIAREN ondotik, ELEBIDE (2008)
- **Sozioekonomia:** Bai Euskarari Ziuurtagiriaren ondotik, Bikain ziuurtagiria (2009). 2005 LanHitz deialdiak. 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzkoa eta 123/2008 Dekretua
- **Hedabideak:** Egunkariaren itxiera (2003), BERRIaren sorrera. 3ko Lurreko Uhinen bidezko telebista-zerbitzua arautzen duen 190/2006 Dekretua
- **Gobernantza:** Bikoizketak eta hizkuntza-politkarako euskalgintzaren zilegitasuna ukatzea (parte hartze terapeutikoa).



EAEko HP (2015-2025): Euskalgintzaren aintzatespenerantz edo eta xurgatze instituzionalerantz?

	PLANGINTZA	BALIABIDEAK	ARAUAK
HEZKUNTZA		2020 (-2021): Helduen euskalduntzean dabiltzan ikasleen gastuak estaltzeko aurrekontu igoera	
ADMINISTRAZIOA	2021 EAEko <i>Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak</i> dokumentua onartu		2/2016 LEGEA, <i>Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa</i> eta 179/2019 DEKRETUA, <i>Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa</i>
SOZIOEKONOMIKOA	2019: <i>Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023</i>		
HEDABIDEAK		2019: HEKIMENen eta instituzioen arteko lankidetzaren hitzarmena	
INGURUNE DIGITALA		2021: <i>Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024</i>	
AISIALDIA	2021: <i>Kirolean Euskara Sustatzeko 2021-2024 Plana</i>		
KULTURA			
BESTERIK	2017: <i>Euskararen Agenda Estrategikoa</i>	2017: Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak <i>Euskaraldia</i> egitasmoa abiatzea	2019 <i>Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak</i> (LAG)

GOBERNANTZA

2017: Hizkuntza-politiken inguruko lankidetzaren hitzarmena: Hiruko Ituna (EJ, NG, EPE)
UEMA HAKOBAko (2013) eta EAB kidea (2014)
Kontseiluko ordezkaria EAB kidea (2015)




TXILLARDEGI
Gogoeta
Gunea

4) EAeko HIZKUNTZA-POLITIKAREN BILAKAERA: BALIABIDEAK



Euskal AEko euskara sustatzeko aurrekontu publikoak, erakunde-motaren arabera. 2002-2020



5) ESTATU-EGITUREN ESKU-HARTZEA: ERASO POLITIKO/JUDIZIALAK

- 2017: Estatuko ordezkariaren ekimenez **EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako euskara planaren gainean** emandako epaia toki euskaldunetan komunikazioak euskaraz bakarrik egitea, kontratazio administratiboetan hizkuntza-irizpideak ezartzea eta diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak ezartzea eragozten duena.
- 2020: Estatuko ordezkariaren ekimenez **Auzitegi Gorenak argitaratutako epaia, 2017an Lasarte-Oriako Udalak onartu zuen ordenantzaren kontra**, zeinaren arabera, euskara diru laguntzetarako irizpide izatea ezetsi zuen.
- 2021: **EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Irungo Udaltzaingo zerbitzurako 12 lanposturi ezarritako hizkuntza eskakizunak bertan behera uzteko argitaratutako epaia.**
- 2021: **EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 2016an Eusko Legebiltzarrean onartu zen Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legearen 6.2 artikulua auzitan jarri zuen**, zinegotzirik bakar bat ere ez duen Vox alderdiak jarritako helegite baten ondorioz.

6) EAEko HIZKUNTZA-POLITIKAZ: ZENBAIT ONDORIO (GABEZIA) OROKOR

1. **Arrazionaltasun neoliberala** (Apodaka, Morales 2021): Teknokrazia + herritarren erabakimena.
2. **Beligerantzia burokratizatu** (Apodaka, Morales 2021): Euskalgintza erakunde-mailako hizkuntza-politikan txertatzea.
3. **Iraupen faseko hizkuntza-politika** (Gartzia, 2016). Belaunaldi berrien euskalduntzean ardaztua.
4. **ETB1/ETB2 politika edo euskara bai, baina...** (Suberbiola 2022).
5. **Boluntarismoan oinarritutakoa (inposizioaren markoak jana)**: gehiegi “molestatu” gabe, eta araugintza baztertuta.


Besteak beste, **EMAITZA**:

- Bi hiztun-tipo talde haundi: **ikasitako omnipotentzia** (Bernat Joan i Mari) eta **ikasitako babesgabetasuna** (Gemma Sangines eta Ferran Suay)

ONDORIOA: Goia jo duen hizkuntza-politika, datozkigun erronka kolosalei aurre egiteko gai ez dena eta berrabiatzea/birpentsatzea eskatzen duena.

7) EAEko HP BIRPENTSATZEN: 6+1 ERRONKA PROPOSAMEN

1. GOBERNANTZA KOMUNITARIOA:



7) EAEko HP BIRPENTSATZEN: 6+1 ERRONKA PROPOSAMEN

2. ZEHARKAKO HIZKUNTZA-POLITIKA:

Lehendakaritza -> Kultura eta Hizkuntza Politika

- Segurtasuna
- Lana eta Enplegua
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua
- Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena
- Ekonomia eta Ogasuna
- Hezkuntza
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak
- Osasuna
- Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak
- Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

7) EAEko HP BIRPENTSATZEN: 6+1 ERRONKA PROPOSAMEN

- 3. FOKOA (MARKOA) BIRKOKATU:** Ez tematu erabilerarekin, tematu erabilera(rako) (erosorako) baldintzekin.
- Erabilera gizarte-baldintzen ondorio edo emaitza da (“sukarra”) ☐ Ezin da erabileran sakoneko aldaketarik espero gizarte-baldintzen egiturazko aldaketarik gabe ☐ Norbanakoen “ahalduntzeak” bere mugak ditu.
 - Fokoa erabileran jarrita ☐ Fokoa erabiltzailean jartzen ☐ Euskaraduna zamatzen
 - Fokoa erabilera erosorako baldintzetan ☐ Fokoa gizarte-baldintzetan ☐ Fokoa politikan

7) EAEko HP BIRPENTSATZEN: 6+1 ERRONKA PROPOSAMEN

4. **ERABILERA EROSORAKO ZORUA:** Ezagutzaren unibertsalizazioa.
 - 3.1 Hezkuntza: murgiltze eta mantentze eredu bakar orokortua
 - 3.2 Helduen euskalduntze eta alfabetatzea
 - 3.3 Familia-transmisioa

5. **ERABILERA EROSORAKO ESPAZIOAK:** Arnasgune territorial eta soziofuntzionalak. Euskara beharrezkoa izan den eremuak.
 - 4.1 Arnasguneen zaintzarako eta garapenerako legea
 - Arnasgune territorial eta soziofuntzionalen izendapen baldintzak
 - Arnasgune territorialak eta soziofuntzionalak zaindu eta garatzeko neurri positiboak
 - 4.2 Arnasguneen (lurralde-antolaketarako) plan sektoriala



7) EAEko HP BIRPENTSATZEN: 6+1 ERRONKA PROPOSAMEN

6. HIZKUNTZA-POLITIKA INTEGRALA ETA ARAUTZAILEA GARATU:

	ERRONKAK
ADMINISTRAZIOA	ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEKO EPE MUGAK ETA BALIABIDE BEREZIAK
SOZIOEKONOMIA	ARAUTU: KONTSUMITZAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK, HIZKUNTZA-KLAUSULA ETA GIZARTE-ERANTZUKIZUNA
INGURUNE DIGITALA	HIZKUNTZA TEKNOLOGIA GARATU ETA EUSKARAZKO EDUKIA SARERATU, ERREFERENTEAK SORTU
HEDABIDEAK	EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO SISTEMA PROPIOA ERATU ARAUTU: KUOTA SISTEMA
AISIALDIA	ARAUTU: ADMINISTRAZIOAK ANTOLATUTAKO EDO LAGUNDUTAKO 16 URTETIK BEHERAKOENTZAKO JARDUERAK EUSKARAZ SOILIK
KULTURA	EUSKARAZKO KULTUR SISTEMA ETA ZIRKUITUA ERATU (IKUSGARRITASUNA EMAN)

7) EAEko HP BIRPENTSATZEN: 6+1 ERRONKA PROPOSAMEN

+1: HIZKUNTZAREN AFERA BIRPOLITIZATU BEHAR

- Hizkuntzaren nondik norakoak indar-harremanen joku-zelaian (erakar-indarra, bultza-indarra. W.F. Mackeyk.1976) ebazten dira, sedukzio edo limurtzearen joku-zelaian baino.